



## KLUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

**HELBURUA: 48 ZERBITZARI HORNITZEA ETA INSTALATZEA**

**PROZEDURA: IREKIA**

**ESLEITZEKO MODUA: LEHIAKETA.**

### 1.- HELBURUA.

Lehiaketa hau gauzatzearen helburua Eusko legebiltzarrean 48 zerbitzari ultradentso hornitzea eta instalatzea da, beste horrenbeste HP Proliant ML 370 G3 ordezeko.

### 2.- ZERBITZARIEN EZAUGARRIAK

#### • Hardware

- 48 (berrogeita zortzi) ekipo (hornitu beharreko kopuru osoa). Guztiek izango dute ondorengoa:
  - \* RAM memoriako 12 Gb
  - \* 3 sata disko, bakoitza 1TBkoa (edo gehiago) ekipo bakoitzean. Horietatik 2 (bi) raid 1ean joango lirateke eta bestea JBODn.
  - \* elikatze-iturri erredundanteak
  - \* USB gailuetatik abiaraztea onartu beharko dute.
- 20 (hogei) ekipo (48 horietatik). Ondorengoa izango dute:
  - \* Sei coreko sei prozesadore, kontsumo baxukoak
  - \* Bi atakadun 4 Gb/s-ko (edo gehiago) zuntzeko txartela, Datacore Sansymphony 6.x y 7.x-rekin bateragarria.
- 26 (hogeita sei) ekipo (48 horietatik). Ondorengoa izango dute:
  - \* Lau coreko bi prozesadore, kontsumo baxukoak
- 2 (bi) ekipo (48 horietatik). Ondorengoa izango dute:
  - # 8 Ethernet aho, ahalik eta tamaina konpaktuenekoak.
  - # CheckPoint Security Gateway R70,R71, R75-rekin homologatuak.





- **Instalazioa**

- \* 48 (berrogeita zortzi) ekipoak elkarren txandan jarrita egongo dira, 4 ekipodun 12 xasisetan edo 8 ekipodun 6 xasisetan.
- \* 48 (berrogeita zortzi) ekipoak HPren 6 (sei) racketan kokatuta eta banatuta joango dira (part Number 245169-001), eraikin batean lau rack etarrita eta beste bi rack beste eraikinean.
- \* 6 (sei) rack hauetako bakoitzean kotsola berria instalatu behar da (switch kvm teklatu eta pantaila egokiekin), kableekin eta egoki funtzionatzeko behar diren edozein motatako osagaiekin batera.
- \* 6 (sei) rack. Egungo PDUak eta elikatze elektrikoko erregletak ordeztu behar dira, horien ordeztu kontsumoen informazioa ematen duten osagai inteligenteak instalatuz.

- **Software**

- Zerbitzariak sistema eragileen honako bertsio hauekin funtzionatu beharko dute, ondorengo zerrendaren arabera:
  - \* Red Hat Linux 4.6
  - \* Red Hat Linux 5.3
  - \* Debian 4.
  - \* Windows Server 2003 SP2
  - \* Windows Server 2008 R2
- Zerbitzari hauetan dauden aplikaziorik nabarmenenak ondorengoak dira:
  - \* Microsoft SQL server 2000
  - \* EMC Legato Networker
  - \* Basis Plus
  - \* Oracle 10g
  - \* Alfresco

- **Bestelako gailu gehigarriak**

- IP bidezko urrutiko administraziorako kotsola (beharrezkoa liratekeen lizentziekin batera). Kotsola horrek urrutiko gailuen erabilpena ahalbidetu beharko du, hala nola USB eta DVD.

- **Beharrezko zerbitzuak:**

- Aurkezten den eskaintzari dagokion kable-sarearen ordenatzea eta etiketatzea.
- Egungo zerbitzariak kentzea (gehienez 20). Kendutako zerbitzari bakoitzeko 100€ deskontatu beharko dira amaierako fakturatik.
- "Physical to Physical" migrazioa ondorengo zerbitzari-zerrendatik zerbitzari berri horietara. Migrazio horien erdia, gutxi gorabehera, ohiko ordutegitik kanpo egingo da.





- \* Red Hat Linux 4.6 6 (sei) ekipo
- \* Red Hat Linux 5.3 2 (bi) ekipo
- \* Debian 4 ekipo 1 (bat)
- \* Windows Server 2003 SP2 10 (hamar) ekipo

- **Aukerazko gailua, ez beharrezkoa:**

- Urrutiko administraziorako kotsola nagusia, CPDetatik kanpo kokatua, Informazio Sistemen Zuzendaritzako bulegoetan, konexiorako TCP/IP sarearen mende ez dagoena. Kotsola hori eskaintzen bada (betiere lehiaketa honi ezarritako gehienezko aurrekontu-mugaren barruan), beharrezkoak liratekeen lizentziak eta funtzionamendu egokirako beharko litzatekeen edozein osagai ere eskaini beharko dira. Urrutiko kotsola horrek eskaintzen dituen funtzioak zehaztu beharko dira, teklatu, pantaila eta saguaz gain.

- **Horniduraren kokapena:**

- Zerbitzari guztiak Eusko Legebiltzarraren egoitzan emango dira (Becerro de Bengoa 01005, Vitoria–Gasteiz), eta helbide horretan bertan dauden datuak prozesatzeko bi zentroetan instalatuko dira.

### 3.- **BALDINTZAK, ESKAKIZUNAK ETA EPEAK**

Eskaintzek, ezinbestean, 48 zerbitzariak gehienez 6 (sei) aste naturalen entregatzeko konpromisoa jaso beharko dute (esleipenaren jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita).

Amaierako prezioan zergak, aseguruak, garraioa eta eskaintzaren gauzatzearekin lotutako beste edozein kostu sartuko da.

Eskaintzek, ezinbestean, eskaintza-egileak lehiaketa gauzatzeko dituen giza baliabide teknikoek deskribapen argia jaso beharko du (hornidura eta instalazioa), esku hartuko duen talde teknikoa zehaztuz. Pertsonak kategoriatu teknikoek arabera, bakoitzaren lan-esperientzia, bere ohiko bulegoaren kokapen geografikoa, proiektuari emandako dedikazioa. Aurreko taldeak izan dezakeen laguntza tekniko gehigarria ere zehaztuko da. Eskaintzek, nahitaez, antzeko proiektuen erreferentziak jaso beharko dituzte.

Instalazioa, zehazki, honako hau da: Zerbitzarietan, kotsolan, teklatuan eta beste edozein osagai elementu gehigarritan rackak ezartzea, ; elementu horiek guztiak kableatzea; beharrezkoa balitz, sinkronizatzea, eta denak funtzionatzen jartzea, adierazitako migrazioak egitea. Migratzen ez diren gainontzeko ekipoetan sistema eragilea instalatzea kanpo geratzen da.

Baldintza teknikoak eskaintza bakoitzera doitzeko, lehiaketa honen xedea hobeto betetzea bermatzearren, lizitatuak oinarri hauetan proposatutako





aukerez gain aukera gehigarriak aurkeztu ahal izango ditu. Eusko Legebiltzarrak aukera horiek ekipoak egoki konfiguratzeko baliatu ahal izango ditu, oinarritzko eskaintzaren osagaiak beste batzuez ordeztzeko edo zenbait ekipori hasieran lehiaketa honetan eskatutako prestazioak baino handiagoak diren prestazioak emateko, betiere lehiaketa honetarako ezarritako gehienezko prezioaren barruan.

#### 4.- BERMEA

Eskaintako ekipoek ezinbestez lau urteko derrigorrezko bermea izango dute, lehiaketa honetan eskaintako hardwarea eta softwarearen mantentzea Legebiltzarreko egoitzan *in situ* egitea barne. Kostua eskaintzaren zenbatekoaren barruan sartuko da. Laguntza-zerbitzuak zortzi ordutik beherako konpontze-denbora bermatu beharko du matxuraren abisua jasotzen denetik, 8X5 modalitatean (8 ordu egunean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko lanegunetan). Hori guztia beraraziaz txertatuko da eskaintzan. Ez da baloratuko mantentze-zerbitzu honen prestaz prestazio-maila handiagorik (ez leiho handiagorik, ez erantzun-denbora gutxiagorik).

Eskaintzek, ezinbestez, zerbitzu honen xede diren lau urteetan *in situ* mantentze-zerbitzuaren euskarri izango diren baliabide teknikoak, giza baliabideak, antolatze-baliabideak eta beste edozein baliabideren deskribapen argia jaso beharko dute. Mantentzearen ardura izango duen enpresa ere adierazi egingo da.

Eskatutako esku-hartze bakoitzeko, dagokion lan-partea beteko da; bertan, emandako zerbitzua, gertakariaren arrazoia eta ezarritako materialak edo erantzuna jasoko dira.

Laguntza-teknikoko langileetatik eratorritako gastu guztiak, joan-etorriak, dietak, garraio-kostuak eta aseguruak barne, bai eta erabili beharreko materialak –baita ere instrumentazioa, dokumentazioa, mantentze-eta konpontze-stocka, euskarria eta hirugarrenen jarduerak (fabrikatzailea edo ordezkaria)- esleipendunaren kontura egongo dira eta eskaintza ekonomikoaren barruan sartuko dira.

Bermea 48 zerbitzariak behin betiko jasotzen diren orduko aktaren datatik hasiko da indarrean.

#### 5.- ISILPEKOTASUNA

Esleipendunak behar den isilpekotasuna gordeko du prozeduraren bidez eta ondorengo garapenaren bidez eskuratzen duen Eusko Legebiltzarreko edozein informazioaren aurrean.





## 6.- AURKEZTU BEHARREKO ESKAINTZAREN EDUKIA ETA EGITURA

Eskaintzek ezinbestean ondoren adierazten den ereduaren araberakoak izan behar dute, modu homogeneoan eta zuzenean baloratu ahal izateko. **Eredu horrekin bat ez datozen eskaintzak atzera bota ahal izango dira.**

### "A" gutun-azalean:

- 1) Eskaintza ekonomikoa
- 2) Benchmark SPEC egiaztatzeko behar den dokumentazioa, <http://www.spec.org> helbidean argitaratutakoa
- 3) Zerbitzari bakoitzaren hardwarearen zerrenda xehatua, agiri honen 2. atalean zehaztutako talde eta azpitaldeetara mugatuz.
- 4) Eskaintzen den softwarearen zerrenda xehatua.
- 5) "Bestelako gailu gehigarrien" zerrenda xehatua.

### "C" gutun-azalean:

- 1) Beharrezko betekizunez gaineko prestazioak eta hobekuntzak, prezioan sartutakoak.
- 2) eskainitako elementuak instalatzeko eta eskatutako migrazioa egiteko plangintza.
- 3) Lau urtez eskainitako materialaren euskarri- eta mantentze-zerbitzua *in situ* emateko plangintza.
- 4) Dokumentazio teknikoa.

### **OHARRAK:**

**1.- Dokumentazio tekniko osoa formatu elektronikoan aurkeztu beharko da.**

**2.- Kostu hauen guztien zenbatekoa, gehienez, 300.000 eurokoa izango da, edozein motatako zerga edo gastua barne, BEZa izan ezik.**





## 7. ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

	<u>Gehienezko</u> <u>puntuazioa</u>
1) Orokorrean beharrezko 144 TB-etik gorako biltegitratzea.....	15
2) 8 Gb-ko zuntzeko txartelak.....	10
3) <a href="http://www.spec.org">http://www.spec.org</a> helbidean argitaratutako Benchmark SPEC CPU2006 .....	15
4) Beharrezko betekizunez gaineko prestazioak eta hobekuntzak, prezioan sartutakoak. ....	10
5) Instalazio- eta migrazio-plangintza.....	10
6) Mantentze-zerbitzuko plangintza.....	10
7) Prezioa .....	30
<b>GUZTIRA</b> .....	<b>100</b>

*Formulen bidez baloratzeakoak diren irizpideak kalkulatzeko formulak:*

*1) 15 puntu TB kopururik handiena duen eskaintzaren TB kopuru gehigarriarengatik / eskaintza bakoitzaren TB kopuru gehigarria*

*2) 10 puntu 8 Gb-ko txartelen kopururik handiena duen eskaintzaren txartelen kopuru gehigarriarengatik / eskaintza bakoitzaren 8 Gb-ko txartelen kopuru gehigarria*

*3) 15 puntu benchmark-en lortutako gehienezko puntuazioarengatik / eskaintza bakoitzean lortutako puntuazioa*

*7) 30 puntu eskaintzarik ekonomikoaren zenbatekoarengatik / eskaintza bakoitzaren zenbatekoa*

## 8.- DOKUMENTAZIOA

- Hornitutako ekipo guztien eskuliburu teknikoak emango dira
- Proposatutako konponbideari buruzko dokumentazioa emango da: Arkitektura, osagaiak, funtzionamendua, mantentze-jarduerak, handitzeko aukerak.
- Agiri honetan aurkeztutako komunikazioak edota dokumentazioa, bai eta interlokuzioa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean egingo dira.
- Ezinbestez, "C" gutun-azalean dagoen dokumentazio tekniko guztia paperean eta dokumentu-mailan nolabaiteko bilaketa, baita hitzen arabera ere, ahalbidetzen duen formatu elektronikoan emango da (CD, DVD etab).





## 9.- ZIGORRAK

- Lehiaketako baldintza bat edo gehiago ez betetze larriak edo ez betetze arin bat behin eta berriz egiteak kontratua bertan behera geratzea ekarriko du.

## 10.- AZKEN OHARRAK

- Esleipendunak bere eskaintzaren zenbatekoaren %5eko balioa duen behin betiko fidantza bat emango du, BEZa kanpo.
- Berme-aldia iraungita eta lehiaketa honen xedearen gauzatze zuzena egiaztatuta, emandako fidantza itzuli egingo da.
- Lehiaketaren zenbateko osoa aldi bakar batean ordainduko da, agiri honen eskakizun guztiak behar bezala bete direla adierazten duen behin betiko hartzearen akta egindakoan. Ordainketaren zati gisa, Eusko Legebiltzarrak gehienez HP PROLIANT ML370G3 modeloaren 20 unitate emango die esleipendunari (ikus azalaren 4.2 puntua eta lehiaketa honen administrazio oinarrien agiriaren XII. Eranskina).
- Eskaintzaren guztizko zenbatekoan eskaintzaren gauzatzearekin lotutako kostu guztiak sartuko dira: aseguruak, garraioak eta beste edozein. Halaber, laguntza teknikoko langileetatik eratorritako gastuak sartuko dira: joan-etorriak, dietak, garraio-kostuak, bai eta bai erabili beharreko materialak –baita ere instrumentazioa, dokumentazioa, euskarria eta hirugarrenen jarduera (fabrikatzailea edo ordezkaria).
- Eskaintzek xehetasun osoz adieraziko dituzte bere konponbide informatikoa egoki ezartzeko beharrezkoak diren baldintza tekniko guztiak: hardwarea, softwarea, prestakuntza, dokumentazioa eta abar..
- Eusko Legebiltzarrak, eskaintza irekitakoan, eskaintzak onartu zaizkien enpresei edozein frogapen edo froga eskatzeko eskubidea gordetzen du, bakoitzaren eskaintzetan azaldutakoa egiaztatzearen.

